



HMBERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2019ko iraila
70. zenbakia

OARSOALDEKO MUSEOEN ARTEKO LANKIDETZA

Oarsoaldeko museoen mahaiak lehen urratsak 2006an eman zituen Herri Musikaren Txokoaren, Luberriren eta Albaolaren elkarlanarekin. Gaur egun, Turismo Agentziarekin batera eskualdea osatzen duten Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko zortzi museo daude.

Gezurra badirudi ere arto esan behar dugu gure eskualdea Euskal Herriko museologian aitzindari izan zela 1902. urtean Victor Hugo Etxearen atek zabalduz Donibanen. Ia mendea pasata 2001ean, Pasaiaiko lagun talde batek *Itsas Gela Elkartea* sortu zuen Getariako MATER itsasontzia museo bihurtuz, bera da Kantauriko egurrezko azken atunontzi klasikoa. Ondoren ireki ziren Oarsoaldeko beste museoak bata bestearen atzetik: *Herri Musikaren txokoa* (gaur *Soinuenea*), *Luberri*, *Arditurri*, *Albaola*, Errenteriako *Jantziaren Zentroa* eta azkenik *Fanderiako errota-Ibaiaren etxea*.

2000. urtean Pasai Donibanen Ontziola ireki zuen Albaola Elkartek, gaur egun Ondartxon, *Albaola*, *Itsas Kultur Faktorian* daude eta XVI. mendeko San Juan Baleontziaren erreplika eraikitzen ari dira.

Eskualdeko turismo agentziarekin batera zortzi erakunde hauek eskualdeko museoen mahaia osatzen dute, museoen arteko elkarlan iraunkor eta sendo bat garatuz; honetan ere aitzindari izan dira gure herriko museologiaren historian.

Lankidetzaren honen lehen urratsa 2006an eman zen: orduko zazpi museoetatik hiruk (Herri Musikaren Txokoa, Luberri, Albaola Elkartea) Oiartzungo Kilometroetan erakusketa bat antolatu zuten karpa batean. Esperientzia hau 2010eko Lezoko Kilometroetan errepikatu zuten. Orduan Oarsoaldeko Garapen Agentziaren Turismo Sailaren babes eta laguntza apartarekin Herri Musikaren Txokoa, Mater, Albaola eta Luberri museoak eta Oarsoaldeko Agentzia bera izan ziren.

Ordur gozotik beti izan dira lanean eskualdeko turismo agentziaren babes-

pean. Ondorengo lan bileretan, seguru ziren txikien arteko batze honek onura besterik ez ziela ekarriko eta zorionez hala izan da. Maiz bildu dira denen artean zalantzak argitzeko asmoz, egitasmo ezberdinei aurre egiteko aholku bila edo bakoitzaren kezak partekatze-ko. Baina batez ere, denen artean gauzatu ditzaketan egitasmo eta ideiek elkartu dituzte.

Lankidetzaren batez ere hiru eremutan eman da:

1. Museo bakoitzak kudeatzen duen bildumaren zati bat eta museoari buruz informazioa ematen duen erakusketa bateratuak antolatuz eskualdeko Kilometroetan edizioetan, Arditurri egunaren hiru edizioetan, Atlantikaldiaren lehen bi edizioetan, 2013 Badia egunean, etabar.

2. Museoak bisitatzeko bono bateratua. Hau erosiz bisitariak zortzi museoetako sarreretan % 50 beharrena du, lehen bonoa 2014ean egin zen eta bigarrena, gaur egun eros daitekeena, 2018az gero dago salgai.

3. Museo bakoitzak bere etxean eta bere esparruari lotutako ekintzak beste museoetan eskaintzea. Ekintza hau lehen aldiz 2017ko Ondarearen Europako Jardunaldien egitarauaren barne gauzatu zen, ondoren gehiago etorri ziren.

Tarteka Oarsoaldeko museoen artean binaka, hirunaka edo launaka ere aritu dira lanean. Hain zuzen ere, heldu den irailaren 15erako Soinueneak eta Albaolak elkarrekin Pasaiaiko Itsas Faktorian Herri Musikaren Udako Kontzertua antolatu dute.

Egitasmo honek jatorria beste behin elkarlanean du, 2017ko Itsas Festivalaren Albaolak Soinueneari jaialdian kontzertu bat emateko eskatu zionean


eta hau *Juan Mari Beltran hirukoteak* eskaini zuenean.

Orain, orduan taularatutakoa sakonduz, Soinuenearen kontzertu zikloan ohikoa den modura bi talde ariko dira: Euskal Herriatik *Juan Mari Beltran laukotea* eta Galiziatik *Gremio de Mareantes*. Biak itsas ondarean oinarritutako doinu eta kantak taularatuko dituzte.

Aurten bost urte beteko dira Albaola Itsas Kultur Faktoriak atek ireki zituenetik eta kontzertua ospakizun honen egitarauaren barne emango da.

8 MUSEO SARRERA BAKARRAREKIN

museos con una sola entrada
musées avec un seul billet
museums with one ticket



ARDITURRI
Meatzuloen barrera - Experiencia minera
Expérience minière - Mining experience




LUBERRI
Geologia museoa - Museo geológico
Musée géologique - Geological museum



SOINUENEA
Herri musika - Música popular
Musique populaire - Traditional music



JANTZIAREN ZENTROA
Centro del traje
Centre du costume - Costume center




SAN MARKO
Gotorlekua - Fuerte - Fort



VICTOR HUGO
Etxea - Casa - Maison - House



MATER
Itsasontzi-museoa - Barco-museo
Bateau-musée - Museum-ship



ALBAOLA
Itsas kultur faktoria - Factoría marítima
Factoría marítima - The sea factory

ERRENTERIA · LEZO · OIARTZUN · PASAIA
SAN SEBASTIAN REGION

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

HM UDAKO KONTZERTUA

2019ko irailaren 15ean - 18:00 - Albaola (Pasai San Pedro) - 5 euro

JUAN MARI BELTRAN LAUKOTEA

(Euskal Herria)



Itsasoa, ontziak, marinelak, arrantzaleak eta arraunlarien inguruko historiak eta istorioak aipatzen dituzten doinuen eskutik, kantuz kantu euskal kostaldetik paseo bat egitea proposatzen dugu **Kostaldekoko soinuak** izeneko musika proiektu honetan.

Guztira 16 pieza dira, herriz herri jasotakoak, Lapurdiko, Gipuzkoako eta Bizkaiko herri kantutegikoak.

Horietako lau hitzik gabeko dantza doinuak dira: Pasaiko bateleren zortzikoa, Lapurdiko Kaskarote dantza, Mariñelen polka eta Lekeitioko Kaixarranka.

Beste 14 abestien hitzetan hamaika gai ageri dira: ontzietan pasatako goseteak, ekaitzak, tragediak, baleen arrantzatzearen kontakizunak, itsas herrietako gertakizunak, Kristobal Colonen bizitza kontatzen duen bertso sorta, emigrazioa, Ternuara joaten ziren marinelen beldurrak...

Gehienak euskal herri kantutegiko piezak dira, besteak beste XX. mende hasieran argitaratu ziren R. M. Azkueren "Cancionero Popular Vasco" eta Aita Donostiaren "Cancionero Vasco" kantutegietatik hartutakoak. Besteak berriagoak dira; "Pasaiko bateleren zortzikoa" Pablo Sorazabalek Gipuzkoako *Uztai handiko zortzikoan* oinarrituta prestatu zuen dantza doinua dugu, eta "Partida tristea Ternuara" XVIII. mendeko hitz zaharrei guk jarritako doinua.

Laukote talde formatuan, emanaldi honetan ahotsekin batera euskal herri musikan erabili izan diren hainbat soinu-tresnen hotsak entzuten dira, batzuk oraindik erabiltzen direnak eta beste batzuk aspaldian erabilitakoak, hala nola akordeoia, txistua eta danbolina, alboka, klarineta, dultzaina, txalaparta, xiolarruak, zarrabetea, gitarra, panderoa, danborra...

Juan Mari Beltran: txistu-danbolina, zarrabetea, xiolarruak, txalaparta, alboka, dultzaina, klarineta

Errege Belda: akordeoia, ahotsa

Ander Barrenetxea Lasarte: ahotsa, danborra, panderoak, txalaparta, kanabera, arxaluak...

Aitor Gabilondo: ahotsa, gitarra

EGITARAUA

- Pasaiko bateleren zortzikoa
- Ene muthilik ttipiena
- Brodazalearen kantorea
- Kaskarote dantza
- Ontzi bat egin da
- Jeiki, jeiki, etchenkuak
- Milla zortzireun da cincuenta y cuatruan
- Pasaiko herritik
- Ale, arraunean
- Kristobal Colon
- Santulari zetan doan Portugaletera
- Barkora, mariñelak
- Partida tristea Ternuara
- Mariñelen polka
- Itsasoa laino dago
- Lekeitioko Kaixarranka



GREMIO DE MAREANTES

(Galizia)



Gremio de Mareantes herri musika egiten duen hirukote gali-ziar bat da. Laurogeita hamarreko hamarkadatik herrialdeko oholtzetan Chouteira, Obradoiro de Cultura Tradicional Ultraia, Carapaus, Zurrumalla eta bestelako taldeetan joaz ibilbide luzea egiten duten musikariak elkartu dira bertan.

Hirukotearen errepertorio guztiak bere jatorria landa lanean eta XX. mendearan hasieran Casto Sampredo, Perfecto Feijoo, Jesús Bal y Gay, Martínez Torner eta beraien garaikideek utzitako kantutegi zaharretan du.

Kontzertu honetan joko dituzten piezak gai zehatz batek elkartzen ditu: itsasoak. Redondelako itsasgizonen antzinako gremioak dantzatzeko zituen dantza solemneak entzuteko aukera izango da, baita *Os Campaneiros de Vilagarcía* gaitero ospetsuek, gaiteroen belaunaldi eta belaunaldiek jarraitu duten eredia, jotako Ría de Arousa inguruan aditzen ziren *muiñeira* alaiak ere.

Oli Xiráldez: Gaitak, flautak eta zanfona

Gustabo Couto: Perkusioak eta ahotsa

Alex Balbuena: Akordeoak


EGITARAUA

- Valse e Xota de Pazos de Merexo
- Rumba dos cinco mariñeiros
- Foliada de Carril
- Muiñeira de Pazos de Merexo
- Xa fun a Marín
- Pasodobre de pazos de Merexo
- Danza de Espadas de Redondela
- Muiñeira vella de perfecto Feijoo (Pontevedra)
- Xota dos gaiteros de Pontevedra
- Pasodobre do Berbes (Porto de Vigo)
- Danza de Mareantes de Camariñas
- Teño un amor en Rianxo
- Fandango de Pontevedra
- Muiñeira dos campaneiros de Vilagarcía
- Foliada de Cerdedo
- Alalá de Muxía
- Foliada de Baiona

kontzertu honen laguntzaileak:



esku-soinuak
9 ZERO SETTE
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com



TRUCO SARIA JUAN MARI BELTRANI

Aurtengo *Festival de Música y Cultura Pirenaicas PIR* uztaileko lehen asteburuan ospatu zen Echon. Hogeita hiru-garren edizioa zuen Aragoiko Mendebaldeko Haranetan urtero egiten den Jaialdi honek. Pirinioetako kulturari zuzendua dago, mendebaldetik ekialdera, iparraldetik hegoaldera.

Kultur ekitaldi ugarik osatzen dute jaialdi horretako egitaraua. Artisautza azoka antolatzen da, Pirinioetako jakiak dastatzeko aukera ere izaten da eta, nola ez, mendilerroaren alde ezberdinetatik etorritako musikari eta dantzarien emanaldiez goza daiteke.

PIR Jaialdi honetan Jazetaniako Eskualdeak *Truco* saria ematen du urtero. Pirinioetako kulturari buruzko ezagutza ikertzen edota hedatzen nabarmendu den pertsona edo erakunderen bat omendu nahi izaten da ekintza honen bidez. Frantzia, Euskal Herria, Aragoi edo Kataluniakoak izaten dira saria jasotzen dutenak, eta urte honetan Euskal Herrira etorri da. Joan den apirilean Jazetaniako Eskualdeak iragarri zuen bezala, Juan Mari Beltrani eman diote aurtun *Truco* saria.

Uztailaren zazpiko eguerdian Echoko plazan egin zen ekitaldian, Juan Mari Beltranek Jazetania Eskualdeko presidentearen, Montse Castán, eskutik jaso zuen saria. Eskerrak emateko hitz batzuk esan ondoren Juan Mari Beltran Hirukotearen kontzertua izan zen.



Jazetania Eskualdeko presidentea den Montse Castán-ek eman zion saria Juan Mari Beltrani Echo-n egin zen ekitaldian. (Arg. SNN)

SOINUENEA BERRITUA

Oiartzungo Udalak Ergoien auzoko eskola zaharrak Herri Musikaren Txokoa hartzeko erabiltzea baimendu zuenetik urte mordoska bat pasa da. Juan Mari Beltranen bilduma osatzen duten soinu-tresnak, liburu eta grabazioak hartzeko eta batez ere publikoak soinu-tresnak ikusteko eraikina egokitu egin behar izan zen. Lan horien ondoren, bi mila eta biau erakusketak bere atea publikoari zabaltu zizkion.

Geroztik, erakusketan eta artxihoan hobekuntzak egiten jarraitu da: erakusketaren baldintza akustikoak hobetu behar izan ziren edota artxihoan dokumentu gehiago gordetzeko goiko solairuaren banaketa aldatu behar izan da. Kanpokaldean, ordea, ez da hainbeste lan egin, eta denboraren eta eguraldiaren eragina pixkanaka nabarmentzen joan da.

Urtearen bukaeran Soinuenea Fundazioko patronoen bileran adostu zen bezala, Udalak berea duen eraikinaren leiho eta hormak pintatu dira eta bide batez, eraikinaren izaera ongi azaltzeko Soinuenearen logotipoa jarri da fatxadan. Horretaz gain, Oiartzun ongi ezagutzen ez dutenentzat iristea errazagoa izateko, bidean eta bide gorrian seinale berriak jarri dira.



Soinuenearen sarrerak itxura berri hau ageri du. (Arg. SNN)

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 572

Antolatutako taldeak: 10

Bisitari kopurua irailera arte: 62.757

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 17.335

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus



OIARTZUNGO
UDALA